

**I. XEDAPEN OROKORRAK****ESTATUKO BURUZAGITZA**

**10776** *1/2020 Lege Organikoa, irailaren 16koa, Terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak erabiltzeari buruzkoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

**HITZAURREA**

I

Herritarren bizitza eta segurtasuna babestea du helburu nagusitzat Europar Batasunaren askatasun-, segurtasun- eta justizia-espazioak. Zenbait neurri hartu dira helburu hori lortzeko; besteak beste, Europar Batasuneko Kontseiluak zera eskatu zion Batzordeari, «Stockholmeko programa: Europa irekia eta segurua, herritarren esanetara eta herritarrak babesteko» programaren bidez, 2010eko maiatzaren 4an: aurkez zezala proposamen bat, terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak («Passenger Name Record», aurrerantzean PNR) erabiltzeko.

Horrez gainera, aurrerapausoak egin dira nazioartean, Europar Batasunaren politika horren kanpo-alderdiari dagokionez. Batzordeak gai horri buruzko funtsezko osagai batzuk bildu zituen 2010eko irailaren 21eko komunikazioan –«Bidaiarien izenen erregistroetako datuak (PNR) beste herrialde batzuei transferitzeari buruzko ikuspegi globala»–, eta Europar Batasunak nazioarteko akordioak sinatu zituen zenbait estaturekin.

Krimen antolatuen mehatxua eta, bereziki, terrorismoarena gero eta handiagoa da Europan, eta horrek berekin dakar balio unibertsalak larriki urratzea, hala nola giza duintasuna, askatasuna, berdintasuna, elkartasuna eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen erabilera, zeinak Europar Batasunaren oinarri baitira. Agintaritzak eskudunek datu pertsonalak tratatzeari dagokionez eta herritarren segurtasun-maila areagotzeko eta datu pertsonalen babeserako esparru juridiko bat sortzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentaraua onartu zen, zeinaren bidez ezartzen baita nola erabiliko diren Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak (PNR) terrorismo delituak eta delinkuentzia-modu larriak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz.

Horretarako, Batasuneko estatuei eskatu zaie txerta ditzatela beren barne-ordenamenduetan egoki diren legezko xedapenak, araututa geratzeko nola transferituko dizkioten Bidaiariei buruzko Informazio Unitateari –estatu bakoitzak berea sortu behar du– Europar Batasunetik kanpoko hegaldien PNR datuak, hargatik eragotzi gabe Europar Batasunaren barne-hegaldietan ere aplikatu ahal izatea, herrialde bakoitzaren irizpidearen arabera, hala aurreikusita baitago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzenturuan. Aukera hori baliatzen da, hain zuzen ere, lege organiko honetan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentaruak xedatzen du nahitaezkoa dela PNR datuak tratatzeko sistema uniforme bat sortzea Europar Batasunean, alderdi hauek argi eta zehatz jasoko dituenak: zer datu joko

diren PNR datutzat; zer helburutara mugatuko den haien bilketa; datuen erabilera eta transmisioa; Batasuneko estatu bakoitzean ezarriko diren bidaiariei buruzko informazio-unitate bakarrak; operadoreei eginbeharrak betetzen laguntzeko neurriak hartzearen derrigortasuna, eta, neurriak bete ezean, zehapen eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasiokoak jarri ahal izatea.

PNR datuak tratatuz, hobetu egingo da terrorismoaren eta delinkuentzia-modu larrien mehatxuari emango zaion erantzuna; izan ere, PNR datuak datu-base eskuragarri eta egokiekkin erkatuko dira, terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko, eta ondoren analizatu eta ebaluatu egingo dira datuak, irizpide espezifikoak eta aldian-aldian berraztertu daitezkeenak erabiliz; hartara, halako jarduera kriminalekin zerikusia duten pertsonak identifikatuko dira eta, aldi berean, pertsona errugabeen arrisku-maila ahalik eta gehien minimizatuko da.

## II

Lege organiko honek hiru kapitulu, hogeita hamalau artikulua, sei xedapen gehigarri eta lau azken xedapen ditu.

I. kapituluaren xedapen orokorrak jasotzen dira, eta alderdi hauek arautzen: lehenik, hegazkin-konpainiek eta betebeharreko beste entitate batzuek PNR datuak transferitzea; bigarrenik, datuak bildu, tratatu eta babestea, agintaritzak eskudunei transmititzea eta Batasuneko beste estatu batzuekin, Europolekin eta hirugarren estatuekin trukitzea; hirugarrenik, Bidaiariei buruzko Espainiako Informazio Unitatea izendatzea, eta, azkenik, zehapen-araubidea.

PNR datuak zertarako erabili ahal izango diren ere zehazten da: terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko, beste ezertarako ez.

Printzipioz, xedapenaren aplikazio-eremuan sartzen dira Espainia jatorritzat, helmugatzen edo iraganbidetzat duten nazioarteko hegaldi guztiak, komertzial zein pribatu, baina badira zenbait salbuespen, hegaldi motaren arabera.

Salbuespenez, aparteko neurri gisa eta, betiere, arrisku-egoera egiaztatu bati buruz nahikoa zantzu dagoenean, posible izango da barne-hegaldi edo -ibilbide jakin batzuk lege organiko honetan ezarritakoari lotzea.

Horrez gainera, betebeharreko subjektuak definitzen dira, eta hegazkin-konpainiak eta hegaldien erreserbak kudeatzen dituzten entitateak bereizten; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentarauan dago aurreikusita halako entitateak lege organiko honen barruan sartzeko aukera.

Terrorismo delituak eta gainerako delitu astunak zein diren ere zehazten da, zeren eta halakoak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzea baita PNR datuak biltzearen arrazoia. Terrorismo delitu dira, beraz, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoan antolakunde eta talde terroristen delitu eta terrorismo delitu gisa jasota daudenak. Gainerako delitu astunei dagokienez, halakotzat hartzen dira, lege honen ondorioetarako, gutxienez hiru urteko espetxealdiarekin zigortzen direnak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentaruaren II. eranskinean jasotako delituak egiteagatik.

Bestalde, zehazten da bidaiarien zer datu bidali behar diren Bidaiariei buruzko Informazio Unitatera; hau da, betebeharreko subjektuek, ohiko jardunean ari direla, beren helburu komertzialetarako biltzen dituzten datuetatik zein igorri behar dituzten. Adibidez, nahitaez bidali behar dira bidaiariei buruzko aurretiazko informazio-sisteman dauden datuak (API sistema), haietatik batzuk, lehen aipatu direnak ez bezala, identifikazio-agiri ofizialekin erkatu baitira.

Bidali egin behar da, orobat, tripulazioari buruzko informazio jakin bat, API datuei dagokiena. Hegaldia pribatua bada, bai bidaiarien eta bai tripulazioaren datuak igorri behar dira. Izan ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentarauan aurreikusita dauden helburuak lortzeko, nahitaezkoa da tripulazioei eta hegaldi pribatuei buruzko datu horiek eskuratzea, zeren eta, halakorik ezean, segurtasun publikoa arrisku larrian jar baitaiteke (ikus besterik ez dago azken urteetako esperientzia).

II. kapituluak PNR datuen tratamendua jorratzen du.

Bidaiariei buruzko Espainiako Informazio Unitatea (BIU) arautzen da, eta Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroaren egituran txertatzen, zeina Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren mende baitago; organo horrek eskarmentua du terrorismo mota guztien aurka eta delinkuentzia antolatuaren aurka borrokatzeko eskura dagoen informazio estrategikoa koordinatu, jaso eta analizatzen.

Unitatearen eginkizunak zehazten dira, nola PNR datuak jaso, tratatu eta analizatzeari buruzkoak, hala barne-agintaritza eskudunekin, Batasuneko beste estatu batzuetako unitate analogoekin, beste herrialde batzuekin eta Europolekin izan beharreko komunikazioei eta trukeei buruzkoak.

Berariaz arautzen da datu-babesaren arduradunaren figura; haren egiteko nagusia izango da bermatzea datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dauden legeak zorrotz betetzen direla, PNR datuak jaso, tratatu, transmititu, gorde eta ezerezteko prozesu osoan zehar.

Datuak transmititzeko garaian, Batzordearen 2017ko apirilaren 28ko (EB) 2017/759 Betearazpen Erabakian definituta dauden formatuak eta protokolo zehatzak erabiliko dira –Batzordearen (EB) 2017/759 Betearazpen Erabakia, hegazkin-konpainiek bidaiariei buruzko informazio-unitateei PNR datuak transmititzeko erabili behar dituzten protokolo erkideei eta datu-formatuei buruzkoa–.

Hegazkin-konpainien betebeharra da, beraz, datuak transmititzeko erabiliko dituzten formatuen eta protokoloen berri ematea BIUri. Horretarako beharrezkoa den azpiegitura teknikorik ez duten hegazkin-konpainiek Barne Ministerioarekin ados dezakete zer bitarteko elektronikoko erabiliko duten transmisioa gauzatzeko, betiere segurtasun-bermeak errespetatuz.

Bi une hauetan bidaliko dira datuak: lehenik, hegaldirako programatutako irteera-ordua baino berrogeita zortzi eta hogeita lau ordu lehenagoko denbora-tartean, eta, bigarrenik, hegaldia itxitakoan –alegia, inork ezin duenean hegazkinean sartu edo hegazkinetik irten–. Hegaldian zehar helmuga aldatzen bada, horren berri ere eman beharko da.

Mehatxu erreal eta zehatz bat dagoelako PNR datuetara irispidea izan behar bada lehen adierazitako uneetatik kanpo, kasuz kasu, hegazkin-konpainiek BIUra bidali beharko dituzte datu horiek, errekerimendua jaso eta berehala.

Lege organiko honetan ezarritako betebeharrak ezertan eragotzi gabe, betebeharreko subjektuek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduak hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua (pertsona fisikoen babesa arautzen duena, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez) eta erregelamendu horretan jasotako gaikuntza erabiliz onartzen den barne-legeria.

Agintaritza eskudunek gauzatu behar duten datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, agintaritza horiek behartuta daude interesdunari informazioa ematera, edo haren esku jartzera, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauan eta hura gure barne-ordenamendura ekartzeko onartzen den lege organikoan interesdunari onartzen zaizkien eskubideen egikaritza erraztera ere.

Kapitulu horretan definitzen da, halaber, zertarako tratatuko dituen BIUk, metodologia definitu bat baliatuz, PNR datuak: aireontziaren barruan dauden pertsonak ebaluatzeko, terrorismo delituekin edo delitu astunekin zerikusia duen oro identifikatu nahi baita; aurretiazko ebaluazio automatizatuaren emaitzak banan-banan berraztertze; agintaritza eskudunen edo Europolen eskaerei erantzuteko, eta ebaluazioetarako erabiliko diren irizpide predeterminatuak ezartzeko.

Horretarako, BIUk honela jokatu du: PNR datuak erkatuko ditu datu-base eskuragarri eta egokiekin, terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko, eta datuak irizpide predeterminatuen arabera tratatuko ditu. Aldez aurretiko egiaztapen automatikoa egin ondoren emaitza positiboa lortzen bada, BIUko espezialista batek eskuzko egiaztapena egin beharko du.

Zehaztuta geratzen da zer agintaritza diren eskudun PNR datuak eskatu edo jasotzeko, edo BIUk egindako datu-tratamenduaren emaitza eskatu edo jasotzeko, haien helburua izanik informazio hori aztertzen jarraitzea edo terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko egokiak diren neurriak hartzea. Hain zuzen ere, hauek dira agintaritza eskudunak: Poliziaren eta Guardia Zibilaren zuzendaritza nagusiak, Inteligentzia Zentro Nazionala, Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoa eta Fiskaltza. Agintaritza eskudun izango dira, baita ere, pertsonak eta ondasunak babesteko eta herritarren segurtasuna mantentzeko eskumenak estatutu bidez onartuta dituzten autonomia-erkidegoetako agintaritzak, baldin eta polizia-kidego propioa badute. Epaleek eta auzitegiek, independentzia-printzipio konstituzionala bermatzeko, legeria espezifikoa ezarritakoaren arabera jardungo dute, halako informazio-eskaerei eta BIUekin izan beharreko lankidetzari dagokienez.

Agintaritza eskudunen eskaerak behar bezala arrazoitu eta oinarrituko dira. Ez da inoiz eskaera masibo ez-oinarriturik onartuko. Terrorismo delituen eta delitu astunen aurka borrokatzeko berezko helburuetarako soilik tratatu ahal izango dituzte agintaritza eskudunek BIUtik jasotzen dituzten datuak.

Kapitulu horretan, gainera, datu-babesaren arloko zenbait xedapen jasotzen dira, alderdi hauei buruzkoak: tratamendu-sistemei eta -prozedurei buruzko dokumentazioa gordetzeko betebeharra; datuak bildu, kontsultatu, transferitu eta ezerezteko eragiketak erregistratzeko betebeharra, eta interesdunari eta kontrol-agintaritza nazionalari datu pertsonalen arloko urraketak jakinarazteko betebeharra, baldin eta urraketa horiek arrisku handia badakarte datuen babeserako edo ondorio negatiboak eragiten badizkiote interesdunaren intimitateari.

Europa askatasun, segurtasun eta justiziarako espazioa denez gero, oso garrantzitsua da Batasuneko estatuak lankidetzan eta elkarlanean aritzea. Eta lankidetzaren barruan, segurtasunarekin zerikusia duten alderdiak funtsezkoak izaten ari dira azken urteotan, terrorismoaren eta krimen antolatuen aurka borrokatzeko. Lankidetzaren ildo horri jarraituz, Espainiak PNR datuak edo datu-tratamenduaren emaitzak bidal diezazkioke Batasuneko beste estatu bati, ofizios edo eskaera jakin bati erantzuteko. Estatuaren arteko eskaerak arrazoituta egongo dira, eta lege organiko honetan aurreikusitako xedeak betetzera zuzenduak, beti.

Espainiako agintaritza eskudunek informazioa eskatu ahal izango diote zuzenean Batasuneko beste estatu bateko Bidaieriei buruzko Informazio Unitateari, baldin eta urgentziatzko inguruabarrak tartean badaude eta, gainera, ezinezkoa bada BIU nazionalarekin harremanetan jartzea. Kasu guztietan, eskaeraren kopia Espainiako BIUra bidaliko da.

Europoli egin beharreko datu-transferentzia bitarteko elektronikoak erabiliz egingo da, eta behar bezala arrazoituta, baldin eta dagokion gaia haren eskumeneren barrukoa bada eta transferentzia ezinbestekoa bada eginkizunak betetzeko.

Beste herrialde batzuei egin beharreko datu-transmisioen prozedura ere jasotzen da. Truke horretan, bete egin beharko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren transposizioa gauzatzeko legeetan ezartzen dena (2016/680 Zuzentaria, zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu, agintaritza eskudunek arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz datu pertsonalak tratatzei eta datu horiek aske zirkulatzei dagokionez, eta indarrak gabe uzten baitu Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia). Gainera, datu-transmisio horrek nahitaezkoa izan beharko du lege organiko honen xedeak lortzeko, eta estatu hartzaileak beste estatu bati transmititu ahal izango dizkio datuak, baldin eta Espainiako unitatearen baimen espresua badauka. Betiere, PNR datuak beste estatu batzuei transmititzean eta erabiltzean, ziurtatuko da eutsiko zaiela lege organiko honetan aurreikusita dauden estandarrei eta bermeei.

Ukitutako subjektuen intimitaterako eskubidea bermatzeko eta, bereziki, datu pertsonalak babesteko eskubidea bermatzeko, bost urtez gordeko dira betebeharreko subjektuek BIUra bidali dituzten PNR datuak; epe hori transmisio-egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Datuak jaso eta sei hilabete igarotakoan, bidaiaria zuzenean identifikatzea

ahalbidetzen duten PNR datuak despertsonalizatu egingo dira, maskaratu, eta, datuen osotasunera irispidea izateko, agintaritza judizialaren edo Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren titularraren aurretiazko onespina eskuratu beharko da.

Behin bost urteko epea igarota dagoenean, datuak behin betiko ezereztuko dira; nolahi ere, datuak jaso dituzten agintaritza eskudunek haiek erabiltzen jarraitu ahal izango dute, baldin eta dagoeneko auzigai jakin batean erabiltzen ari badira, terrorismo delituak edo delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu edo epaitzeko asmoz.

Kapitulu horretan, azkenik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eskumenak arautzen dira, PNR datuak kontrolatzeko agintaritza nazionala den aldetik.

III. kapitulua –zehapen-araubideari buruzkoa– arloa dela-eta behar-beharrezkoak diren espezialitateak ezartzera mugatzen da; gainerako guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako araubide orokorra aplikatuko da.

Horiek horrela, subjektu erantzuleak, erantzukizunaren araubide bereziak eta araupilaketa definitzen dira; arau-haustek tipifikatzen dira –oso astunak, astunak eta arinak–; arau-hauste motaren arabera ezarri behar diren zehapenak zehazten dira, zeinen mailakatzea erabakitzeko orduan aintzat hartuko baitira, besteak beste, segurtasun publikoan izandako eragina, astuntasuna edo lortutako onura; zehatzeko eskumena finkatzen da, eta, azkenik, prozedura-arau bereziak biltzen dira, ebazteko eskumena duen organoak behin-behineko neurriak hartzeagatik sortzen diren gastuei buruzkoak eta prozedura iraungitzeari buruzkoak.

Xedapen gehigarrietan, berriz, arautzen da zer epe izango duten hegazkin-konpainiek BIUri jakinarazteko zer datu-formatu eta transmisio-protokolo erabiliko dituzten; horrez gainera, ezartzen da ezen Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak ezarritako prozeduren arabera egingo direla komunikazioak, eta arauak xedatzen dira, agintaritza eskudun jakin batzuetara bidalitako PNR datuen transmisioari dagokionez –agintaritza eskudunak dira: Inteligentzia Zentro Nazionala, Poliziaren eta Guardia Zibilaren zuzendaritza nagusiak, Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoa, epaileak eta auzitegiak, eta Fiskaltza–.

Lege organiko honek azken lau xedapen ditu, hauei buruzkoak: eskumen-titulua, lege organikoaren izaera duten manuak, Europar Batasunaren Zuzenbidea txertatzea eta indarrean jartzea.

### III

Lege organiko hau egitean, premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientiaren printzipioak bete dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arabera. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzendarauaren transposizioa egiteko derrigor eman beharra dago arau hau, zeinaren onarpenak berekin baitakartza lege organikoaren mailari dagozkion bermeak; izan ere, herritarren oinarritzko eskubideak garatzen ditu.

Azkenik, aipatzekoa da lege organiko hau Ministro Kontseiluak 2017ko abenduaren 7ko bilkuran onartutako 2018. urteko Araugintza Planean sartuta dagoela.

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea.

1. Herritarren segurtasuna eta bizitza bermatu eta babeste aldera, gai hauek arautzen dira lege organiko honetan:

a) Bidaiarien Izenen Erregistroko datuen transferentzia (aurrerantzean, PNR datuak), bai eta 5.3 artikuluan adierazitako tripulazioaren informazioarena ere, nazioarteko hegaldietakoa eta, hala badagokio, barne-hegaldietakoa, II. kapituluan jasotako baldintzetan eta ondorioekin.

b) PNR datuak bildu, erabili, biltegitatu, tratatu, babestu, irispidean izan eta gordetzeko sistema; datu horiek agintaritza eskudunei transmititzea, eta datuak Europar Batasuneko estatuarekin, Europolekin eta beste herrialde batzuekin trukitzea.

c) Bidaiariei buruzko Espainiako Informazio Unitatearen eginkizunak zehaztu eta esleitzea.

d) Arau-hausteei aplikatuko zaien zehapen-araubidea, lege organiko honetan ezarritakoari jarraituz.

2. PNR datuak tratatzearen helburu bakarra izango da lege organiko honen 4. artikuluan adierazten diren terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzea; betiere, 12.2 artikuluan ezarritako xedeen arabera tratatuko dira datuak.

### 2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Europar Batasunaren barneko zein kanpoko nazioarteko hegaldietan bidaiatzen duten pertsonen PNR datuei aplikatuko zaie lege organiko hau, baldin eta hegaldia Espainiako lurraldetik irten edo Espainiako lurraldera iristen bada edo Espainiako lurraldean eskala egiten badu. Azken kasu horretan, beti barnean hartuko dira iragaitzazko edo loturako bidaiariak, hurrengo apartatuan adierazten diren zehaztapenekin.

2. Hegaldi komertzialei eta hegaldi pribatuei aplikatuko zaie lege organiko hau.

Ez zaie aplikatuko, ordea, estatu-aireontziek egiten dituzten hegaldiei eta aireontzi pribatuek egiten dituztenei, baldin eta Estatuak pleitatu baditu interes militarreko zerbitzuak edo, oro har, estatu-zerbitzu ez-komertzialak emateko edo haietan laguntzeko, bakar-bakarrik prestazio edo laguntza hori emateko helburua duten hegaldiei dagokienez, halakoak estatu-aireontziekin parekatuko baitira; ez zaie aplikatuko, orobat, aireko lanei, pertsonak garraiatzeko helbururik ez duen abiazio orokorrari, aireportu-zerbitzuei, aire-nabigazioko zerbitzuei, aireontzi zibilak ekoiztearekin zerikusia duten hegaldiei, tripulazioak entrenatzeko hegaldiei, mantentze- eta berrikusketa-lanetarako lekualdaketa-hegaldiei, eta erregulazio-eginkizunekin zerikusia duten hegaldiei.

3. Aparteko neurri gisa eta behar-beharrezkoa den aldirako soilik, barne-ibilbide edo -hegaldi jakin batzuei ere aplikatuko zaie, beste ezein estatutan eskalarik egiten ez badute eta arrisku-egoera argi eta egiaztatu baten gaineko nahikoa zantzu badago, 4. artikuluan adierazten diren delituak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz.

Ministro Kontseiluak erabakiko du zein diren ibilbide edo hegaldi horiek, Barne Ministerioaren titularraren proposamena aztertu ondoren eta neurriaren apartekotasuna, premia eta proportzionaltasuna kontuan hartuta.

### 3. artikulua. *Betebeharpeko subjektuak.*

1. Betebeharpeko subjektu dira hegazkin-konpainiak; hau da, aireko garraiorako baliozko ustiapen-lizentzia bat edo antzekoren bat duten aireko garraioko enpresak.

Lege organiko honen ondorioetarako, enpresaren definizioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko irailaren 24ko 1008/2008 (EE) Erregelamenduan ezarrita dagoena izango da (1008/2008 Erregelamendua, Europako Erkidegoan aireko zerbitzuak ustiatzeko arau erkideei buruzkoa), eta barnean hartuko ditu pertsona fisiko zein juridikoak, irabazi-asmoa izan zein ez izan, eta organismo ofizialak, nortasun juridikoa izan zein ez izan.

Hegaldia pribatua bada, aireontzien operadoreak izango dira betebeharpeko subjektu, bai jabe gisa, bai errentari gisa, edo indarrean dagoen legeriaren arabera emandako beste jabetza-titulu baten indarrez.

2. Hegaldien erreserbak kudeatzen dituzten entitateak ere betebeharpeko subjektu dira, halakotzat hartuta bidaiarien hegaldi-erreserbak kudeatu eta haien PNR datuak biltzen dituzten entitateak –edozein direla ere horretarako erabiltzen dituzten bitartekoak–, hala nola bidaia-agentzia handizkariak edo bidaia-agentziak; 9.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera geratuko dira behartuta entitate horiek.

4. artikulua. *Terrorismo delituak eta delitu astunak.*

1. Lege organiko honen ondorio hutsetarako, terrorismo delitu dira Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoan antolakunde eta talde terroristen delitu gisa eta terrorismo delitu gisa jasota daudenak.

2. Orobat, lege organiko honen ondorio hutsetarako, delitu astun dira hauetakoren bat egiteagatik legearen indarrez gutxienez hiru urteko espetxealdia ezarrita duten delituak:

- a) Delitu-antolakunde bateko kide izatea.
- b) Gizakien salerosketa.
- c) Umeen sexu-esplotazioa eta haur-pornografia.
- d) Estupefazianteen eta substantzia psikotropikoen legez kontrako trafikoa.
- e) Armen, munizioen eta lehergailuen legez kontrako trafikoa.
- f) Ustelkeria.
- g) Iruzurra, Europar Batasunaren interes finantzarioei eragiten diena barne.
- h) Delituaren produktua zuritzea eta moneta faltsutzea, euroa barne.
- i) Delitu informatikoak / Ziberdelinkuentzia.
- j) Ingurumenaren aurkako delituak, animalia-espezie babestuen eta landare-espezie eta -barietate babestuen legez kontrako trafikoa barne.
- k) Legez kontrako sarrera eta egonaldirako laguntza ematea.
- l) Borondatezko giza hilketa, eta lesio larriak eragiten dituen eraso.
- m) Giza organo eta ehunen legez kontrako trafikoa.
- n) Bahiketa, legearen aurkako atxiloketa eta bahituak hartzea.
- ñ) Lapurreta antolatua eta armak erabiliz egindakoa.
- o) Kultur ondasunen legez kontrako trafikoa, antzinako gauzena eta artelanena barne.
- p) Salgaien jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak faltsutzea eta urratzea.
- q) Administrazio-dokumentuak faltsutzea eta administrazio-dokumentu faltsuekin trafikatzeara.
- r) Substantzia hormonalen eta bestelako hazkuntza-faktoreen legez kontrako trafikoa.
- s) Gai erradioaktiboen edo substantzia nuklearren legez kontrako trafikoa.
- t) Bortxaketa.
- u) Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikzioan jasotako delituak.
- v) Aireontzien eta ontzien bahiketa.
- w) Sabotajea.
- x) Lapurtutako ibilgailuen trafikoa.
- y) Espioitza industrial.

5. artikulua. *Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak (PNR datuak).*

1. PNR datuak zera dira: bidaiari batek erreserbatu duen bidaiari edo haren izenean dagoen bidaiari buruzko datuen multzoa, erreserba kudeatzeko beharrezkoa den informazioa biltzen duena.

2. Hauek dira bidaiarien PNR datuak:

- a) PNR erregistroko erreserba-zenbakia.
- b) Erreserbaren eguna eta txartela eman den eguna.
- c) Bidaiaren data aurreikusiak.
- d) Izen-abizenak.
- e) Helbidea eta harremanetarako datuak (telefono-zenbakia, helbide elektronikoa).
- f) Ordainketa-datu guztiak, fakturazio-helbidea barne.
- g) Bidaiaren ibilbide osoa, PNR espezifikoiari dagokionez.
- h) Maiz bidaiatzen duten pertsonen buruzko informazioa.
- i) Bidaia-agentzia edo bidaia-operadorea.
- j) Bidaiariaren hegaldi-egoera: berrespenak, fakturatzea, ez agertzea edo erreserbarik gabeko azken orduko bidaiariak.

- k) Zatitutako edo berezitateko PNR informazioa.
- l) Ohar orokorrak, barnean hartuta bakarrik bidaiatzen duten hemezortzi urtetik beherako adingabeei buruz dagoen informazio guztia, hala nola adingabearen izen-abizenak, sexua, adina eta hitz egiten dituen hizkuntzak; irteerako aireportuko laguntzailearen izen-abizenak, harremanetarako helbidea eta adingabearekin duen lotura; iritsierako aireportuko laguntzailearen izen-abizenak, harremanetarako helbidea eta adingabearekin duen lotura, eta irteerako eta iritsierako agentea.
- m) Txartelari buruzko informazioa, barnean hartuta txartelaren zenbakia, txartela eman den eguna, joanekoak soilik diren txartelak eta txartel elektronikoen tarifa (*Automatic Ticket Fare Quote*).
- n) Eserlekuaren datuak, zenbakia barne.
- ñ) Kode partekatuei buruzko informazioa.
- o) Ekipajeari buruzko informazio guztia.
- p) Bidaiari-kopurua eta PNRn ageri diren beste bidaiari batzuen izenak.
- q) Bidaiariei buruzko aurretiatzko informazio-sisteman jasota dagoen informazioa (API sistema): zer motatako nortasun-agiria den, agiriaren zenbakia, emate-herrialdea eta iraugitze-data, bidaiariaren nazionalitatea, izen-abizenak, sexua eta jaiotze-data, hegazkin-konpainia, hegaldi-zenbakia, irteera-data, iritsiera-data, irteerako aireportua, iritsierako aireportua, irteera-ordua eta iritsiera-ordua.
- r) Aurreko a) letratik q) letrara adierazitako PNR datuen aldaketan historia.

3. Hegaldi komertzialen kasuan, lege organiko honen xedapenak, bidaiarien datuei ez ezik, tripulazioaren datuei ere aplikatuko zaizkie q) letraren kasuan, bai eta hegazkin barruan doan edozeinen datuei ere, aurreko apartatuaren o) eta q) letretan adierazitakoari dagokionez. Hegaldi pribatuen kasuan ere, bidaiarien eta tripulazioaren datu horiei aplikatuko zaizkie xedapenak.

## II. KAPITULUA

### PNR datuen tratamendua

#### 6. artikulua. *Bidaiariei buruzko Informazio Unitatea.*

1. Bidaiariei buruzko Espainiako Informazio Unitatea (BIU) Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroan integratzen da organikoki, eta Barne Ministerioko Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren mende dago.
2. PNR datuen tratamenduaren arduraduna da BIU.

#### 7. artikulua. *Eginkizunak eta ahalmenak.*

1. BIUK eginkizun hauek beteko ditu eskusiboki:
  - a) PNR datuak bildu, biltegiatu eta tratatzea eta, hala badagokio, datuak edo datu-tratamenduaren emaitza agintaritza eskudunei transferitzea.
  - b) Nola PNR datuak hala datu-tratamenduaren emaitza Europar Batasuneko beste estatu batzuetako bidaiariei buruzko informazio-unitateekin, Europolekin eta beste herrialde batzuekin trukitzea.
2. Aurreko apartatuan adierazitako eginkizunak betetze aldera, BIUK ardura hauek hartuko ditu:
  - a) Datuak analizatu, erlazionatu eta balioestea.
  - b) Terrorismo delituetan eta delitu astunetan nahasita egon daitezkeen pertsonak identifikatzeko irizpide erabilgarriak ezarri eta eguneratzea, agintaritza eskudunekin elkarlanean arituta, egoki bada.
  - c) Inteligentzia estrategikoari eta arrisku-analisiari buruzko txostenak idaztea.
  - d) Ikerketa eta jarduera operatiboez arduratzen diren agintaritza eskudunekin elkarlanean aritzea eta, elkarlan-esparru horretan, jarduteko protokoloak taxutzea.



e) Lege organiko honek xedatutako arau-hauste izan daitezkeen egitateen berri ematea halakoak zehatzeko eskumena duen organoari.

f) BIUren jarduerari buruzko urteko estatistikak lantzea, barnean hartuta zenbat pertsonaren PNR datuak bildu edo trukatu diren eta zenbat pertsona identifikatu diren gerora aztertuak izateko.

3. Lurralde nazionalako leku seguru batean edo batzuetan soilik biltegitatu, tratatu eta analizatuko dira PNR datuak.

4. Eginkizunak betetzeko beharrezkoa denean, 14. artikuluan zerrendatzen diren agintaritza eskudunetako langileek zerbitzuak eman ahal izango dituzte BIUn. Langile horiek zerbitzu aktiboan egoten jarraituko dute beren kidegoetan, jatorriko Administrazioaren mende, bai organikoki, bai funtzionalki eta bai ordainsariei dagokienez; nolahi ere, eginkizunak BIUn betetzen dituzten bitartean, BIUren antolamenduari eta funtzionamenduari buruz ezarrita dagoenari jaramon egingo diote.

#### 8. artikulua. *Datu-babesaren arduraduna.*

1. BIUK PNR datuak babesteko arduraduna izendatuko du, zeinak zainduko baitu datuen tratamendua kontrolatzeko neurri egokiak hartzen direla eta datu-babesaren arloko bermeak aplikatzen direla. Datu-babesaren arduraduna izango da harremanetarako kontaktu bakarra, eta interesdunek harengana jotzeko eskubidea izango dute, PNR datuen tratamenduari buruzko zalantzak argitzeko.

2. Izendatuko den pertsona hautatzeko garaian, kontuan hartuko dira haren lanbide-gaitasunak eta, bereziki, datu pertsonalen babesaren arloko legeriari eta jardunbideei buruz dituen ezagutza espezializatuak, bai eta lege organiko honetan adierazitako eginkizunak betetzeko duen gaitasuna ere. Pertsona horrek eginkizunak efikaziaz eta independentziaz betetzeko behar dituen baliabideak izango ditu.

3. BIUK tratatutako PNR datu guztietara irispidea izango du datu-babesaren arduradunak. Datu-tratamendu bat legez kontrakoa izan dela uste badu, horren berri emango dio tratamenduaren arduradunari, hark beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak har ditzan, eta, hala iritziz gero, kontrol-agintaritza nazionalera igorriko du kasua.

4. Lege organiko honetan aurreikusita ez dagoen guztia arautzeko, honako hauek aplikatuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentararen transposizioa gauzatzeko emango den legerian datuak babesteko ordezkariari dagokienez arautzen dena (2016/680 Zuzentaraia, zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu, agintaritza eskudunek arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez, eta indarrik gabe uzten baitu Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia) eta, une hori iritsi arte, arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu eta epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz agintaritza eskudunek datu pertsonalak tratatzeari dagokionez Espainiako Zuzenbidean dauden arauak.

#### 9. artikulua. *Datuak transmititzeko betebeharrak.*

1. Hegazkin-konpainiek, ohiko jardunean ari direla, 2. artikuluan aipatutako hegaldiei buruz biltzen dituzten PNR datuak igorriko dituzte BIUren datu-basera. Hegaldi pribatuen kasuan, operadorearen ardura izango da 5.3 artikuluan adierazitako informazioa BIUra bidaltzea.

Hegaldi berarekin lotutako hegazkin-konpainia bat baino gehiago egonez gero, operadore gisa diharduen hegazkin-konpainiak transmititu beharko ditu datuak.

2. Hegaldien erreserbak kudeatzen dituzten entitateek, ohiko jardunean ari direla, 2. artikuluan aipatutako hegaldiei buruz biltzen dituzten datuak sartuko dituzte PNRn.

3. Informatzeko betebeharrak betetzeko, eta ezertan eragotzi gabe Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoa (pertsona fisikoen babesa arautzen duena, datu pertsonalen tratamenduari eta

datuon zirkulazio askeari dagokienez) eta erregelamendu horretan jasotako gaikuntza erabiliz onartzen den barne-legerian ezarritakoa, betebeharreko subjektuek PNR datuen ukituei jakinarazi behar diete zergatik jaso diren datuak eta nor izango den datuen hartzailea –Bidaiariei buruzko Informazio Unitatea– eta esango diete unitate horretako datu-babesaren arduradunarengana jo behar dutela PNR datuen tratamenduari buruzko zalantzak argitzeko.

4. Hegazkin-konpainiek bitarteko elektronikoa erabiliko dituzte beti PNR datuak BIUra bidaltzeko, eta bitarteko horiek nahikoa berme emango dute, kasuan kasuko datu-tratamendua arautzen duten segurtasun teknikoko neurriak eta antolamendu-neurriak betetzen direla ziurtatzeko. Datuak transmititzeko garaian, Batzordearen 2017ko apirilaren 28ko (EB) 2017/759 Betearazpen Erabakian ezarrita dauden datu-formatuak eta transmisio-protokoloak erabiliko dira –2017/759 Betearazpen Erabakia, hegazkin-konpainiek bidaiariei buruzko informazio-unitateei PNR datuak transmititzeko erabili behar dituzten protokolo erkideei eta datu-formatuei buruzkoa–.

Hegaldi bereko bidaiariei buruzko API datuak eta gainerako PNR datuak berezita transmititzen badituzte, Batzordearen 2017ko apirilaren 28ko (EB) 2017/759 Betearazpen Erabakian adierazitako datu-formatu espezifikoak erabili beharko dute datuak BIUra bidaltzeko.

Hutsegite tekniko bat edo bat-bateko ezintasun bat gertatzen bada, ahalik eta azkarren transmitituko dituzte PNR datuak, haien segurtasun-maila egokia bermatzeko baliagarria den beste edozein bitarteko erabiliz.

5. Hegazkin-konpainia batek ez badu lan egiten egutegi zehatz eta publiko baten arabera eta ez badauka Batzordearen 2017ko apirilaren 28ko (EB) 2017/759 Betearazpen Erabakian jasota dauden datu-formatuak eta transmisio-protokoloak erabiltzeko beharrezkoa den azpiegitura teknikoa, honela transmitituko ditu PNR datuak: hegazkin-konpainiaren eta Barne Ministerioaren aldebiko erabakiaren bidez adosten diren formatuen eta bitarteko elektronikoen bidez, baldin eta nahikoa berme eskaintzen badute segurtasun teknikoko neurriei dagokienez. Araubide hori aplikatuko zaie beti hegaldi pribatuei.

#### 10. artikulua. *Datuak transmititzeko uneak.*

1. Hegazkin-konpainiek une hauetan transmititu behar dizkiote PNR datuak BIUri:

a) Hegaldirako programatutako irteera-ordua baino hogeita lau eta berrogeita zortzi ordu lehenagoko denbora-tartean.

b) Hegaldia itxi eta berehala, behin bidaiariak hegazkineratuta daudenean, hegaldia irtetear, eta, beraz, hegazkinean sartzea edo lurreratzea ezinezkoa denean.

Hegazkin-konpainiek a) letraren arabera helarazi duten informazioa eguneratzera muga dezakete b) letran aurreikusitako transmisioa.

2. Ibilbideari ekin aurretik edo ibilbidean zehar lurreratzeko aurreikusita dagoen helmuga aldatuz gero edo programatu gabeko eskala bat egin behar izanez gero, hegazkin-konpainiek horren berri eman beharko dute.

3. Gainera, 1. apartatuan adierazitako uneetatik kanpo PNR datuetara irispidea izatea nahitaezkoa denean terrorismo delituekin edo delitu astunekin zerikusia duen mehatxu erreal eta zehatz bati erantzuteko, betebeharreko subjektuek, kasuz kasu, datu horiek transmititu beharko dizkiote BIUri, errekerimendua jaso eta berehala.

#### 11. artikulua. *PNR datuen tratamenduari aplikatu behar zaion araubide juridikoa.*

1. BIUk eta 14. artikuluan jasotako agintaritza eskudunek gauzatzen dituzten datu pertsonalen tratamenduak lege organiko honen arabera arautuko dira, eta, modu osagarrian, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren transposizioa egiteko onartzen den legeriaren arabera, eta, une hori iritsi arte, arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu eta epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz agintaritza eskudunek datu pertsonalak tratatzeari buruz Espainiako Zuzenbidean dauden arauen arabera. Araubide juridiko horren barruan

sartzen dira, orobat, bidaiarien datu pertsonalen babesa eta haien eskubideak datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, kalte-ordainak jasotzeko eta errekurtsu judiziala jartzeko.

2. Lege organiko honetan ezarrita dauden betebeharrak ezertan eragotzi gabe, 3. artikuluko betebeharreko subjektuek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduak hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua eta erregelamendu horretan jasotako gaikuntza erabiliz onartzen den barne-legeria.

## 12. artikulua. *PNR datuen tratamendua.*

### 1. BIUK jasoko ditu PNR datuak.

Transmititutako informazioak lege organiko honetan adierazitako datuez bestelako daturen bat badauka, BIUK berehala eta behin betiko ezereztuko du datu hori, jaso bezain laster.

### 2. BIUK xede hauetarako soilik tratatuko ditu PNR datuak:

a) Bidaiariak eta tripulazioa ebaluatzeko, hegaldirako programatutako iritsieraren edo irteeraren aurretik; horri esker, identifikatu egingo dira agintaritzaren eskudunek edo, hala badagokio, Europolek berraztertu behar dituen pertsonak, hau da, terrorismo delitu batean edo delitu astun batean nahasita egon daitezkeenak.

b) Agintaritzaren eskudunek, behar bezala arrazoituta eta oinarrituta, PNR datuak eta tratamenduaren emaitza transferitzeko aurkezten dituzten eskaerei banan-banan erantzuteko; betiere, terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoa duten kasu espezifikotan.

c) PNR datuak analizatzeko, 3.b) apartatuaren babesean egiten diren ebaluazioetan erabili beharreko irizpideak ezarri edo eguneratze aldera; hartara, terrorismo delituetan edo delitu astunetan nahasita egon daitezkeen pertsonak identifikatu ahal izango dira.

Ebaluazio-irizpide predeterminatu horiek proportzionatuak eta espezifikoak izango dira, eta lortu nahi den helburura zuzenduak. Ez dira oinarrituko pertsonen arraza- edo etnia-jatorrian, iritzi politikoetan, erlijio- edo filosofia-sinesmenetan, sindikatueta edo alderdi politikoetako kideztan, osasun-egoeran edo bizitza edo orientazio sexualean. Irizpideok BIUK ezarri eta berraztertuko ditu aldian-aldian, agintaritzaren eskudunekin elkarlanean arituta.

3. Artikulu honen 2.a) apartatuan aipatzen den ebaluazioari dagokionez, BIUK eragiketa hauek egin ditzake PNR datuekin:

a) PNR datuak datu-base eskuragarri eta egokiekin erkatuko ditu, terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz.

b) PNR datuak tratatuko ditu terrorismo delituetan edo delitu astunetan nahasita egon daitezkeen pertsonak identifikatzeko ezarrita dauden irizpide predeterminatuen arabera.

4. Artikulu honen 2.a) apartatuaren arabera egindako ebaluazioak emaitza positiboren bat ematen badu, BIUK bakarka berraztertuko du emaitza hori, bitarteko ez-automatizatuak erabiliz, helburua baita egiaztatzea ea agintaritzaren eskudunek berriro aztertu behar duten edo dagozkion ekintzak edo prozedurak abiarazi behar dituzten. Horretarako, BIUK agintaritzaren eskudunei transmititu beharko dizkie PNR datuak.

## 13. artikulua. *Ebaluazioaren ondorioak.*

Aurreko artikulua 2.a) apartatuan aipatzen den bidaiarien ebaluaziotik ateratako ondorioek ez dute kaltetuko Europar Batasunean aske zirkulatzeko eskubidea duten pertsonak Espainian sartzeko duten eskubidea.

Ebaluatuak diren bidaiariak Europar Batasuneko barne-hegaldietakoak badira eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko martxoaren 9ko (EB) 2016/399 Erregelamendua aplikatu behar bazaie (zeinaren bidez Batasunaren arau-kodea ezartzen

baita pertsonak mugak zeharkatzeko), ebaluazioaren ondorioak erregelamendu horretan aurreikusitakoari lotuko zaizkio.

#### 14. artikulua. *Agintaritza eskudunak.*

1. Agintaritza hauek dute eskumena PNR datuak edo datu-tratamenduaren emaitza eskatzeko edo jasotzeko BIUtik, dagokion informazioa aztertzen jarraitze aldera edo terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera:

- a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia.
- b) Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusia.
- c) Inteligentzia Zentro Nazionala.
- d) Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoa.
- e) Fiskaltza.
- f) Pertsonak eta ondasunak babesteko eta herritarren segurtasuna mantentzeko eskumenak estatutu bidez onartuta dituzten autonomia-erkidegoetako agintaritzak, baldin eta polizia-kidego propioa badute.

2. Agintaritza eskudunek egiten dituzten datu-eskaerak behar bezala arazoitu eta oinarrituko dira. Ez da inoiz eskaera masibo ez-oinarriturik onartuko.

3. Agintaritza eskudunak, dagozkien eskumenen eremuan, lankidetzan arituko dira BIUrekin, lege organiko honen helburuak betetzeko.

4. Epaile eta auzitegiei, zeinak agintaritza eskuduntzat hartuko baitira, ez zaizkie aplikatuko 2. eta 3. apartatuak, botere judizialaren independentzia-printzipio konstituzionalari jaramon eginez; beraz, datu-eskaerei eta BIUrekin izan beharreko lankidetzari dagokienez, jurisdikzio-funtzioaren egikaritzari aplikatu behar zaion legerian ezarritakoaren arabera jardungo dute.

5. Agintaritza eskudunek BIUtik jasotzen dituzten datuak trata ditzakete gerora, baina bakarrik terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko helburu espezifikoetarako, hargatik eragotzi gabe dagozkion ekintzak edo prozedurak gauzatzea edo abiaraztea, datu-tratamenduaren ondorioz beste delitu eta delitu-zantzu batzuk detektatzen badira.

6. Agintaritza eskudunek ez dute erabakirik hartuko PNR datuen tratamendu automatizatuan oinarrituta soilik, baldin eta horren ondorioz norbaitek kontrako ondorio juridikoak edo eragin negatiboak jasango baditu.

Erabakiak ezingo dira oinarritu pertsonen arraza- edo etnia-jatorrian, iritzi politikoetan, erlijio- edo filosofia-sinesmenetan, sindikatueta edo alderdi politikoetako kideztan, osasun-egoeran, edo bizitza eta orientazio sexualean.

#### 15. artikulua. *Datu pertsonalen babesa.*

1. BIUk ezingo ditu tratatu pertsonari buruzko honako informazio hau ezagutzera ematen duten PNR datuak: arraza- edo etnia-jatorria; iritzi politikoak; erlijio- edo filosofia-sinesmenak; sindikatueta edo alderdi politikoetako kideztza; osasun-egoera, edo bizitza edo orientazio sexuala. Halako informazioa barnean duten PNR datuak jasotzen baditu, berehala ezereztuko ditu.

2. BIUk gorde egin beharra dauka bere erantzukizunpeko tratamendu-sistema eta -prozedura guztiei buruzko dokumentazioa.

Gutxienez alderdi hauek jasoko dira dokumentazio horretan:

a) BIUko langileen artetik nor den PNR datuen tratamendu-eragilea eta nor datu-babesaren arduraduna (bien identifikazio-datuak jasoko dira), eta irispiderako baimenaren mailak.

b) Agintaritza eskudunek eta Batasuneko beste estatu batzuetako bidaiariei buruzko informazio-unitateek aurkeztu dituzten eskaerak.

c) Beste herrialde batzuei edo Europoli PNR datuekin lotuta egindako transmisioak eta eskaerak.

Kontrol-agintaritza nazionalak eskatuta, BIUK haren esku jarriko du dokumentazioa, indarrean dagoen legeriaren arabera.

3. BIUK, gutxienez, datuak bildu, kontsultatu, transferitu eta ezerezteko egiten diren eragiketak erregistratu beharko ditu.

Kontsulta- eta transferentzia-erregistroetan, eragiketen xedea, data eta ordua zehaztuko dira, eta, ahal den neurrian, PNR datuak kontsultatu edo transmititu zituen pertsonaren nortasuna eta datuen hartzaileen nortasuna ere bai.

Erregistroak egiaztatze- eta autokontrol-eginkizunak betetzeko, datuen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko eta auditoretza-lanak egiteko besterik ez dira erabiliko, eta bost urtez gordeko dira.

Kontrol-agintaritza nazionalak eskatuz gero, BIUK haren esku jarriko ditu erregistroak, aplikatu behar den legeriaren arabera.

4. Litekeena bada datu pertsonalen gaineko urraketa batek arrisku handia ekartzea datuen babeserako edo ondorio negatiboak eragitea interesdunaren intimitateari, BIUK urraketaren berri emango die interesdunari eta kontrol-agintaritza nazionalari, bidegabeko atzerapenik gabe.

5. BIUK, kontuan harturik PNR datuen tratamenduak eta ezaugarriek zer arrisku dakartzaten, segurtasun-maila handia bermatzeko egokiak diren prozedura eta neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatuko ditu.

#### 16. artikulua. *Europar Batasuneko estatuen artean informazioa trukatzea.*

1. BIUK terrorismo delituetan edo delitu astunetan nahasita egon daitezkeen pertsonak identifikatzen baditu, haiei buruz egokiak eta beharrezkoak diren PNR datuak edo datu horien tratamenduaren emaitza transmitituko die Batasuneko beste estatu batzuetako bidaiariei buruzko informazio-unitateei. Baina transmisioa gauzatu aurretik, kasuak banan-banan aztertu beharko ditu, eta, PNR datuen tratamendua automatizatu izan bada, bitarteko ez-automatizatuen bidez berraztertuko ditu datuak banaka.

Aldiz, BIU bada PNR datuak edo datuen tratamenduaren emaitza jasotzen duena, Batasuneko beste estatu bateko Bidaiariei buruzko Informazio Unitatetik jaso ere, agintaritza eskudunei egokiak eta beharrezkoak diren datu guztiak igorriko dizkie, banan-banan berraztertu ondoren.

2. BIUK eskubidea izango du, kasu jakin bakoitzean, Batasuneko beste estatu bateko Bidaiariei buruzko Informazio Unitateari eskatzeko eman diezazkiola haren datu-basean biltegitratuta dauden PNR datuak, osagaiak maskaratu ez direnak, eta, beharrezkoa bada, edozein datu-tratamenduren emaitza; betiere, terrorismo delituak edo delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu edo epaitzeko asmoz eskatuko ditu datuak. Eskaera behar bezala arrazoitu beharko du.

Datuak despertsonalizatuta badaude osagaiak maskaratu direlako, orduan, eskaera jaso duen bidaiariei buruzko informazio-unitatea Batasuneko zer estatutakoa den, han aplikatu behar den zuzenbide nazionalaren arabera transmitituko dira datuak.

3. Orobat, Batasuneko edozein estatutako bidaiariei buruzko informazio-unitateak zuzenean BIUri eska diezazkioke PNR datuak edo tratamenduaren emaitza, aurreko apartatuan adierazitako baldintza berberetan. Halakoetan, ahalik eta lasterren emango dio informazioa BIUK.

Eskatutako datuak maskaratu egin badira, eta, beraz, despertsonalizatuta badaude, BIUK kasu berezietan baino ezingo ditu bidali datu osoak edo tratamenduaren emaitza; hain zuzen ere, ezinbestekoa denean terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko. Gainera, agintaritza judizialak edo Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren titularrak horretarako baimena eman beharko du.

4. Agintaritza eskudun batek Europar Batasuneko estatu batek bildu dituen PNR datuak behar baditu, BIUren bitartez bideratu beharko ditu eskaera arrazoituak.

Ezinezkoa bada eskaera BIUren bitartez helaraztea, urgentziarako kasua bada eta eskaerak 2. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen baditu, halakoetan bakarrik, agintaritza eskudunek zuzenean eskatu ahal izango dizkiote datuak Batasuneko beste estatu bateko Bidaiariei buruzko Informazio Unitateari.

Zuzeneko eta urgentziarako eskaeraren kopia bat bidaliko da BIUra, dagokion Batasuneko estatuko Bidaiariei buruzko Informazio Unitatera eskaera bidali orduko, eta zuzeneko bidalketa justifikatzen duten arrazoiak ere igorriko dira, ahalik eta lasterren.

5. Salbuespenez, PNR datuetara irispidea izatea ezinbestekoa denean terrorismo delituekin edo delitu astunekin zerikusia duen mehatxu zehatz eta erreal bati erantzuteko, BIUK dagokion Batasuneko estatuko Bidaiariei buruzko Informazio Unitateari eskatuko dio PNR datuak eskura ditzala 10. artikuluan adierazitako ohiko transmisio-uneetatik kanpo eta transmititu diezazkiola berari.

Era berean, BIUK ahalik eta azkarren erantzungo die aurreko paragrafoan adierazitako kasuetan Batasuneko beste estatu batzuetatik jasotzen dituen eskaerei.

6. Artikulu honetan aurreikusitako informazio-trukea egin ahal izango da, Batasuneko estatuetakoa agintaritza eskudunen artean lankidetzan aritzeko ezarrita dauden bideetatik edozein erabiliz.

17. artikulua. *Europoli datuak transferitzea.*

1. BIUK Europolek eskatzen dizkion PNR datu espezifikoak edo datu-tratamenduaren emaitza transferituko ditu, kasuz kasu, bitarteko elektronikoak erabilita eta behar bezala arrazoituta, behar-beharrezkoa denean Europar Batasuneko estatu batek terrorismo delituak eta delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu edo epaitzeko egiten duen ekintza babestu eta indartzeko, delitua Europolen eskumen-eremuaren barrukoa bada eta transferentziaren helburua eginkizunak betetzea bada.

2. Eskaeran azalduko da zergatik uste duen Europolek PNR datuak edo datu-tratamenduaren emaitzak transmititzeak nabarmen lagundu dezakeela dagokion arau-hauste penala prebenitu, detektatu edo ikertzen.

3. Europolek artikulua honen babesean egiten den informazio-truke ororen berri emango dio datu-babesaren arduradunari.

4. Informazioa Seguru Trukatze Sarea (SIENA) erabiliko da informazioa trukatzeko.

18. artikulua. *Europar Batasunekoak ez diren beste herrialde batzuei datuak transferitzea.*

1. BIUK Europar Batasunekoak ez diren beste herrialde batzuei PNR datuak eta datu-tratamenduaren emaitza transferitu ahal izango dizkie, kasu jakin batzuetan eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren transposizioa egiteko onartzen den legerian beste herrialde batzuei datuak transferitzeko ezartzen diren baldintzak, eta, une hori iritsi arte, arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu eta epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz agintaritza eskudunek datu pertsonalak tratatzeari buruz Espainiako Zuzenbidean dauden arauak.

b) Transmisioa nahitaezkoa izatea 1.2 artikuluan jasota dauden helburuak lortzeko.

c) Beste herrialdeak hitzmatea PNR datuak beste herrialde bati transmitituko dizkiola bakar-bakarrik ezinbestekoa bada lege organiko honen xedeak lortzeko eta, betiere, BIUren baimen espresua badauka.

d) 16. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

2. PNR datuak eman zituen Batasuneko estatuaren aurretiko adostasunik izan gabe, BIUK salbuespenezko kasuetan soilik transmititu ahal izango ditu PNR datuak, betiere baldintza hauek beteta:

a) Datuak funtsezkoak izatea Batasuneko estatu batean edo beste herrialde batean terrorismo delituekin edo delitu astunekin zerikusia duen mehatxu espezifiko eta erreal bati erantzuteko.

b) Aurretiko adostasuna garaiz eskuratu ezin izatea.

BIUK jakitun ipiniko du, atzerapenik gabe, adostasuna emateko erantzukizuna duen Batasuneko estatuko agintaritza. BIUK transmisioa erregistratutako du, eta, gerora, hura egiaztatzeke aukera egongo da.

3. Artikulu honetan aurreikusitakoaren babesean BIUK beste herrialde batzuei PNR datuak transferitzen dizkien bakoitzean, datu-babesaren arduraduna jakinaren gainean jarriko da.

4. BIUK PNR datuak transmititu ahal izango dizkie beste herrialde batzuetako agintaritza eskudunei, baldin eta ziurtatuta badago lege organiko honen pareko baldintza-eta berme-estandarretara egokitzen direla eta PNR datuen hartzaileek datuez egin nahi duten erabilera bat datorrela adierazitako baldintza eta bermeekin.

19. artikulua. *Datuak gordetzeko epea, eta despertsonalizazioa.*

1. Betebeharpeko subjektuek BIUri emandako PNR datuak unitatearen datu-base batean gordeko dira bost urtez, datuak BIUri transmititu zaizkion egunetik zenbatzen hasita.

2. Behin sei hilabete igaro direnean 1. apartatuan adierazitako transmisioa egin denetik, PNR datu guztiak despertsonalizatu egin behar dira, maskaratu; modu horretan, erabiltzaileek ezingo dituzte ikusi ukitua zuzenean identifikatzeko balio dezaketen osagai hauek:

a) Izen-abizenak, PNRn ageri diren beste bidaiari batzuenak barne, eta PNR-ren arabera batera bidaiatzen duten pertsonen kopurua.

b) Helbidea eta harremanetarako datuak.

c) Ordainketari buruzko datu guztiak, baita fakturazio-helbidea ere, baldin eta PNR erregistroan jasota dagoen bidaiaria edo beste edonor zuzenean identifikatzeko balio dezakeen informazioa badute.

d) Maiz bidaiatzen duten pertsonen buruzko informazioa.

e) Ohar orokorrak, baldin eta erregistroan jasota dagoen bidaiaria zuzenean identifikatzeko balio dezakeen informazioa biltzen badute.

f) Bidaiariei buruzko API datu guztiak.

3. Honako honen 2. apartatuan aipatu den sei hilabeteko epea amaitu ondoren, datu osoak transmititu ahal izango dira bakar-bakarrik bi inguruabar hauek aldi berean gertatzen direnean:

a) Beharrezkoa izatea 12.2.b) artikuluan ezarritako ondorioetarako.

b) Agintaritza judizialaren edo Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren titularraren onspena izatea. Azken kasu horretan, transmisioaren berri emango zaio BIUKo datu-babesaren arduradunari, zeinak, gerora, eragiketa berraztertu ahal izango baitu.

4. PNR datuak behin betiko ezereztuko dira, 1. apartatuan adierazitako epea amaitutakoan. Betebehar hori horrela bada ere, zenbait kasutan agintaritza eskudunek araudi espezifikoen arabera gordeko dituzte datuak; hain zuzen ere, hala gertatuko da PNR datu espezifikoak agintaritza eskudun bati transferitu zaizkionean eta hura datuak erabiltzen ari denean terrorismo delituak edo delitu astunak prebenitu, detektatu, ikertu edo epaitzeko asmoa duen gai zehatz bat lantzeko.

5. Lege organiko honen 12.2.a) artikuluan adierazitako tratamenduaren emaitzak behar beste denboraz gordeko ditu BIUK, tratamenduaren emaitza positiboa izanez gero astia egon dadin agintaritza eskudunei eta Batasuneko beste estatu batzuetako bidaiariei buruzko informazio-unitateei horren berri emateko.

Tratamendu automatizatu baten emaitza negatiboa bada bitarteko ez-automatizatuen bidez banaka aztertu ondoren, biltegiatuta gera daiteke, etorkizunean emaitza positibo

faltsurik egon ez dadin, baldin eta 4. apartatuaren arabera oinarri-datuak ezereztu ez badira.

20. artikulua. *Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eskumenak.*

Araudi espezifikokoak ematen dizkion eskumenez gainera, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak –lege organiko honetan aurreikusita dauden ondorioetarako PNR datuak kontrolatzeko agintaritza nazionala denez gero– eskumen hauek egikaritzuko ditu:

a) Hala eskatzen badiote, aholkuak ematea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentaraua aplikatzeko Espainian onartzen diren xedapenen aplikazioari buruz, eta aplikazio hori kontrolatzea, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez interesdunen oinarritzko eskubideak babeste aldera.

b) Lege organiko honen babesean egindako tratamenduen kontra aurkezten diren erreklamazioez arduratzea eta arrazoizko epe baten barruan haiei erantzutea.

c) Tratamenduen legezkotasuna egiaztatzea, dela Agentziaren beraren ekimenez, dela erreklamazio baten ondorioz; horretarako, araudi erregulatzailan ezarritakoaren arabera, ikerketak, ikuskapenak eta auditoretzak egin ahal izango ditu, hargatik eragotzi gabe Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagozkion eginkizunak, jurisdikzio-funtzioaren egikaritzari lotutako datuen tratamendua kontrolatzeko agintaritza den aldetik.

### III. KAPITULUA

#### Zehapen-araubidea

##### 1. atala. Xedapen orokorrak

21. artikulua. *Subjektu erantzuleak.*

Zuzenean arau-hausteen erantzule izango dira egiteen zein ez-egiteen ondorioz arau-haustearen jokabidea burutu duten betebeharreko subjektuak.

22. artikulua. *Tratamenduaren arduraduna eta datu-babesaren arduraduna.*

Hauen araberan zehaztuko da zer erantzukizun duten PNR datuen tratamenduaren arduradunak eta PNR datuen babesaren arduradunak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren transposizioa egiteko onartzen den legeriaren arabera, eta, une hori iritsi arte, arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu eta epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz agintaritza eskudunek datu pertsonalak tratatzeari buruz Espainiako Zuzenbidean dauden arauen arabera.

23. artikulua. *Arau berezia.*

Lege organiko honen ondorio hutsetarako, arau-hauste bakartzat hartuko dira PNR datuak transmititzeko edo bidaltzeko betebeharrarekin lotuta hegaldi berari dagokionez egin diren ez-betetze guztiak.

24. artikulua. *Arau-pilaketa.*

1. Lege organiko honen edo beste baten bi manu edo gehiagoren arabera kalifikatu daitezkeen egitateak, ez badira datu pertsonalak babesteko araudi orokorraren arau-hauste, erregela hauen arabera zehatuko dira:

a) Manu orokorraren aurrean, bereziak du aplikatzeko lehentasuna.

b) Manu zabalenak edo konplexuenak baitaratuko ditu bere baitan subsumitutako arau-hausteak zehatzen dituen manua.



c) Aurreko irizpiderik ezean, egitateari zehapen handiena ezartzen dion manua aplikatuko da.

2. Egitate bakar batek bi arau-hauste edo gehiago ekarriz gero, edo horietako bat bestea egiteko beharrezko bitartekoa bada, zehapen handiena aplikatzen zaion arau-hausteagatik zehatuko da jokaera.

## 2. atala. Arau-haustek.

### 25. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Lege organiko honetan tipifikatutako arau-haustek oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

### 26. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

Arau-hauste oso astunak izango dira honako hauek:

a) PNR datuak ez bidaltzea 10.1 eta 10.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, jokabide horrek arrisku larrian jarri baditu herritarren segurtasuna edo pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa.

b) PNR datuak ez bidaltzea 9.4 artikuluan ezarritako formatuen eta protokoloen arabera, jokabide horrek arrisku larrian jarri baditu herritarren segurtasuna edo pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa.

c) Aurretiatzko errekerimenduaren kasuan, PNR datuak ez bidaltzea edo epez kanpo bidaltzea, jokabide horrek arrisku larrian jarri baditu herritarren segurtasuna edo pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa.

d) PNR datuak BIUra ez transmititzea 10.3 artikulua xedatutako kasuetan.

### 27. artikulua. Arau-hauste astunak.

Arau-hauste astunak izango dira honako hauek:

a) PNR datuak ez bidaltzea 10.1 eta 10.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

b) PNR datuak ez bidaltzea 9.4 artikuluan ezarritako formatuen eta protokoloen arabera.

c) Betebeharpeko subjektuek ez hartzea, garaiz eta forma egokian, beharrezkoak diren neurriak transmisioak legearen arabera egiteko.

d) Aurretiatzko errekerimenduaren kasuan, PNR datuak ez bidaltzea edo epez kanpo bidaltzea, edo transmisiorako finkatuta dauden baldintza teknikoak eta legezkoak bete gabe bidaltzea.

e) Datu-transmisioetako ez-egiteak.

f) Ibilbideari ekin aurretik edo ibilbidean zehar lurreratzeko aurreikusita dagoen helmuga aldatzen bada, horren berri ez ematea, lege organiko honek xedatutakoaren arabera.

g) PNR datuak transmititzeko sistema elektronikoen seguruaren mantentze-lanetan ardura-falta erakustea, baldin eta jokabide hori ez bada arau-haustetzat hartzen datu pertsonalak babesteko araudi orokorraren arabera.

### 28. artikulua. Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak izango dira honako hauek:

a) BIUri datu-formatuen eta transmisio-protokoloen berri ez ematea aurreikusitako epean.

b) Lege organiko honetan ezarritako beste edozein ez-betetze, arau-hauste astuna edo oso astuna ez dena.

### 3. atala. Zehapenak.

#### 29. artikulua. Zehapenak.

Arau-hauste oso astunei 60.001 eurotik 300.000 eurora bitarteko isuna ezarriko zaie; astunei 20.001 eurotik 60.000 eurora bitartekoa, eta arinei, berriz, 3.000 eurotik 20.000 eurora bitartekoa.

#### 30. artikulua. Zehapenak mailakatzea.

Proporzionaltasun-printzipioari jarraituz, zehapenen zenbatekoa mailakatu egingo da, kontuan hartuta, besteak beste, jarraian adierazten diren inguruabarrak eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 29. artikuluan aurreikusita daudenak:

- a) Alderdi hauetan izan duen eragina: segurtasun publikoa edo/eta pertsonen intimitaterako, datu-babeserako, irudirako edo ohorerako eskubideak.
- b) Arau-haustea egiteak berekin ekarri duen onura ekonomikoa.
- c) Arau-haustearen izaera, astuntasuna eta iraupena, kontuan hartuta zenbat pertsona izan diren ukituak eta zer-nolakoak izan diren kalte-galerak.
- d) Ondorio kaltegarriak konpontzeko edo arintzeko eskaini den laguntza-maila.

#### 31. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Hauetara zehapenak jartzeko organo eskudunak:

- a) Barne Ministerioaren titularrak, arau-hauste oso astunak zehatzeko.
- b) Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren titularrak, arau-hauste astunak eta arinak zehatzeko.

### 4. atala. Zehapen-prozeduraren arau bereziak.

#### 32. artikulua. Behin-behineko neurriak.

Behin-behineko neurriak hartzeagatik sortzen diren gastuak zehapen-prozeduraren xede diren egitateen sortzaileak hartuko ditu bere gain. Behin zehapena administrazio-bidean irmoa denean, eta hala badagokio, gastuok erreklamatu ahal izango dira, premiamenduko administrazio-prozeduraren bidez.

#### 33. artikulua. Prozedura iraungitzea.

Prozedura hasi eta urtebetera iraungiko da ebazpenik jakinarazi ezean; halere, epe hori zenbatzean, interesdunari egozteko moduko eteteak hartuko dira kontuan, bai eta zigor-arloko prozedura judiziala dagoelako, eta amaitzen den arte, erabaki beharreko etetea ere, betiere horrelakoetan subjektuaren nortasuna, gertaera eta oinarriaren funtsa berberak badira.

#### 34. artikulua. Beste administrazio publiko batzuen datuetarako irispidea.

Lege organiko honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko eskumena duten organoek, eskumenak betetzean, arau-haustearen egitatei buruzko ikerketarekin zuzeneko harremana duten arau-hausleen datuetara irispidea izan dezakete, egokiak diren segurtasun-, osotasun- eta irisgarritasun-bermeak betez gero. Datuetarako irispidea eta datuen tratamendua datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean ezarritakoaren arabera egingo dira beti.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Datu-formatuak eta transmisio-protokoloak jakinarazteko epea.*

Hegazkin-konpainiek berrogei eguneko epea izango dute, lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik aurrera, erabiliko dituzten datu-formatuak eta transmisio-protokoloak BIUri jakinarazteko. Bai formatua eta bai protokoloa Batzordearen 2017ko apirilaren 28ko (EB) 2017/759 Betearazpen Erabakian jasotakoen artean egongo dira.

Bigarren xedapen gehigarria. *PNR datuen transmisioa.*

Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak ezarritako transmisio-bitartekoak erabiliko dira PNR datuak transmititzeko, 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Inteligentzia Zentro Nazionalak PNR datuetara irispidea izateko araubide juridikoa.*

Inteligentzia Zentro Nazionalak PNR datuetara izango duen irispidea eta irispide horren gaineko kontrola lege organiko honetan aurreikusitakoaren arabera egingo dira, eta ongi babestuko da, beti, zentroaren jarduerak eta helburuek legez ezarrita duten sekretu-izaera, Inteligentzia Zentro Nazionala arautzen duen maiatzaren 6ko 11/2002 Legean ezarritako misioak eta eginkizunak betetzeko.

Laugarren xedapen gehigarria. *Poliziaren eta Guardia Zibilaren zuzendaritza nagusiei eta polizia-kidego propioa eta integrala duten autonomia-erkidegoetako agintaritza eskudunei PNR datuak transmititzea.*

Poliziaren eta Guardia Zibilaren zuzendaritza nagusiei egin beharreko PNR datuen transmisioak eta haien gaineko kontrola lege organiko honetan aurreikusitakoaren arabera egingo dira, eta ongi babestuko da, beti, terrorismo delituekin eta gainerako delitu astunekin zerikusia duten datuen ikerketek eta haietatik sortutako inteligentziak ezarrita duten ezkutuko izaera.

Aurreko paragrafoan datuak transmititzeko eta ikerketak eta inteligentzia babesteko ezarri den araubide bera aplikatuko zaie pertsonak eta ondasunak babesteko eta herritarren segurtasuna mantentzeko eskumenak beren gain hartuta dituzten eta polizia-kidego propioa duten autonomia-erkidegoetako agintaritza eskudunei.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoari PNR datuak transmititzea.*

Aduana Zaintzako Zuzendaritza Ondokoari egin beharreko PNR datuen transmisioak eta haien gaineko kontrola lege organiko honetan aurreikusitakoaren arabera egingo dira, eta ongi babestuko da, beti, abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorren arabera zergen arloan garrantzitsuak diren datuen ezkutuko izaera, bai eta bere eskumenerako delitu astunekin zerikusia duten datuen ikerketek eta haietatik sortutako inteligentziak ezarrita duten ezkutuko izaera ere.

Seigarren xedapen gehigarria. *Epailerei, auzitegiei eta Fiskaltzari PNR datuak transmititzea.*

Epailerei, auzitegiei eta Fiskaltzari datuak transmititzeko, lege organiko honetan aurreikusitakoa beteko da, hargatik eragotzi gabe datuen tratamenduari jurisdikzio-ahalaren egikaritza arautzen duen legeria aplikatzea.

Zehazki, lege organiko honen 14.4 artikulua xedatutakoa beteko da epailerei eta auzitegiei PNR datuak transmititzeko garaian.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-titulua.*

Lege organiko hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 eta 149.1.29 artikuluen babesean ematen da, zeinen indarrez Estatuak eskumen eskusiboa baitauka, hurrenez hurren, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginberrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak arautzeari buruz eta segurtasun publikoari buruz.

Azken xedapenetako bigarrena. *Lege organikoaren izaera duten manuak.*

1. Manu hauek izaera organikoa dute:
  - a) 4. eta 5. artikulua.
  - b) II. kapitulua.
  - c) Azken xedapenetako bigarrena.
2. Aurreko apartatuan sartuta ez dauden manuek lege arruntaren izaera dute.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Europar Batasunaren Zuzenbidea txertatzea.*

Lege organiko honen bidez, Espainiako Zuzenbidean txertatzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/681 Zuzentaraua, zeinaren bidez ezartzen baita nola erabiliko diren Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak (PNR) terrorismo delituak eta delinkuentzia-modu larriak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko asmoz.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege organiko hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta bi hilabete igarota, lehenengo xedapen gehigarria izan ezik; izan ere, xedapen hori argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2020ko irailaren 16an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN